



Expte. nº SUBV_CON_COMPET/2019/28

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, HAUR ETA GAZTEEN ESPARRUAREN AISIAN
ETA DENBORA LIBREAN PREBENTZIOKO ETA SUSTAPENEN KOMUNITATE-
PROIEKTUAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATEEI
ZUZENDUA. 2019. URTEA.

Deialdi honen helburua da diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honen B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua).**

IRUÑEKO UDALA.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaría
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Araubidea ezartzea, 2019. urtean irabazi-asmorik gabeko entitate eta elkarteei Gizarte Zerbitzuen arloko diru-laguntzak emateko, Iruñean haur eta nerabeekin sustapen eta prebentzioko komunitate-proiektuak egin ditzaten, gizarte eta heziketa izaerako aisialdi eta denbora libreko jarduerak komunitate-esparruan eginez.

2. Deialdiaren helburua:

Diru-laguntzen xede diren proiektuak eta jarduketak Iruñeko mugartean garatuko dira. Hona deialdi honen xedea: aurkezten diren entitate edo elkarteek lurralde bateko haur eta gazte guztiek inoizko prebentzio-proiektuak garatzea, herritar guztiei zabalduko aisialdi eta denbora libreko jarduerak eginez, gizarte- nahiz hezkuntza-ikuspegiarekin.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Entitate eskatzaile bakoitzak proiektu bakar baterako ahalko du diru-laguntza eskatu eta jaso, bai banaka hartzen badu parte deialdian, bai entitateen talde bat ordezkatzuz egiten badu. Aurkeztutako proiektua beste proiektu handiago baten parte izan daiteke. Halako kasuetan, argi zehaztu beharko da proiektuaren edo programaren zein partetarako eskatzen den diru-laguntza eta parte horren kostua.

3.1.- Proiektuek bete beharreko baldintzak eta jarduketa-esparrua:

Diru-laguntza zein proiektutarako eskatu eta horien edukiek haur eta gazteen aisiaren eta denbora librearen esparrukoak izan behar dute, bai eta honako helburu hauek eduki ere: kolektibo-, talde- eta gizarte-izaerako komunitate-jarduerak garatu behar dituzte, gizarte, hezkuntza eta kultur arloetako edukiak dituztenak. Jarduera horiek eskolaz kanpoko aisia eta denbora librearen esparruan eginen dira, honako baldintza hauekin bat:

- Iruñeko auzoetan baliabideak eskuragarri egon daitezen bermatzea haur eta gazteentzat oro har,



aisialdiko uneak modu hezigarrian eta elkarrekin pasa ditzaten.

- Haur eta gazte guztiei zuzendutako ekimenak –metodologia partizipatiboetan oinarrituak– antolatzea, prebentzio- eta sustapen-baliabideak finkatzeko, haurren eta gazteen bizitegi- eta komunitate-inguruneetan.
- Halako ekimenetan bereziki sartzea defizit-egoeretan –norberarena, familiarena edo inguruarena– edo babesgabatasun-arriskuan dauden haur eta gazteak, halako moduz non adingabekoen garapen pertsonala bultzatuko duten gizarte- zein hezkuntza-laguntzako prozesuak abiatuko baitira.
- Familien engaiamendua sustatzea proiektuen esparruan haien seme-alabak egiten ari diren prozesu partizipatiboetan, familiaren bizikidetasunaren esparruan komunikazio elkarreragilea bultzatzen duten dinamikak sor daitezen.
- Gizarte-boluntariotza sustatzea parte-hartzaileen artean, dinamizazio-baliabide gisara, bai eta belaunaldi-txandaketa ere elkarrekin, hura baita, geroari begira, elkarrekin iraupen eta finkapenaren bermea.
- Elkarrekin eta erabiltzaileen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea, auzoetan proposamenak egin daitezkeen elkarlana eta koordinazioa baliaturik.
- Proiektuak zein ingurutan garatu behar, eta bertan inbrikaturik eta kokaturik egotea testuinguruarekin koherenteak izaki, betiere eraginkortasuna eta eragimena bermaturik egonda xedeetan, helburuetan eta partaidetzako zein kudeaketako estrategietan.
- Balioak sustatzea, hala nola genero-berdintasuna, gizarte-lankidetzak, errespetua, elkartasuna, elkarbizitza, gizatasun kritikoa eta kulturartekotasuna. Halaber, elkarrekin formalki egoitza non eduki eta bertako haur eta gazteei espresuki zuzentzea proiektuak.
- Aukera ematea elkarrekin egoitza non eduki eta auzo horretako haur eta gazte guztiek parte har dezaten.

3.2. Hona proiektuek bete behar dituzten baldintzak deialdi honetan parte hartzeko:

- a) Proiektu zehatzak osatu behar dituzte, eta ez bakarrik jarduera isolatuak izan.
- b) Aurkeztutako proiektuak egokia izan behar du deialdi honen xede eta helburuarekiko.
- c) Proiektua Iruñeko udal-mugarrean gauzatuko da, oro har, eta zehazki, gune jakin batean.
- d) Behar bezala garatu eta justifikatu behar da informazioa, honako hauei buruz: helburuak, jarduerak, jarduera egiteko erabili beharreko espazioak, giza baliabideak eta baliabide materialak, gauzatze-aldiak, jardueraren jarraipena, ebaluazio-sistemak, etab.
- e) Diru-laguntza zein proiektutarako eskatu eta hori 2019. urtean gauzatu beharra dago.
- f) Baldin eta aurkeztutako proiektua 2018ko haur eta gazteen esparruaren aisan eta denbora librean prebentzioko eta sustapeneko komunitate-proiektuak garatzeko deialdian diruz lagundua izan den baten jarraipena bada, aipatutako deialdian eskatutako jarraipen-txostenak eta frogatze-agiriak aurkeztuta izan behar dituzte. Ez dira diruz lagunduko beste batzuen jarraipena diren proiektuak, baldin eta aurrekoak bete izana justifikatu ez bada.
- g) Kontuan hartu beharreko bestelako betekizunak:
 - Elkarrekin sustatzaileak zein ingurutan jarduten duen eta, ahal dela, proiektuak bertan garatu behar dira.
 - Proiektuek berariaz egon behar dute zuzenduta haurrei zein gazteei, eta haietan teknikoki egiazaturik dauden gizarte eta hezkuntza arloko metodologia eta baliabideak erabiliko dira.
 - Haurrei zein gazteei, oro har, irekita egon behar dute, eta ezein kasutan ere ez da egonen ez banakako ez taldeko diskriminaziorik edo bazterkeriarik, sexu, arraza, ideologia edo erlijioa dela bide, halako moduz non proiektuaren edozein gauzatze-fasetan sartzen ahalko baitira parte-hartzaile gehiago, eta, bereziki, Udalaren gizarte-zerbitzuetatik hara bideratutakoak.
 - Proiektuek izaera prebentiboa izan behar dute eta lagungarri izan behar dira ezagutza eta erabiltzaileen arteko harremana eta elkarbizitza sustatzeko, gizartearen kohesioan aurrerapausoak eta hobekuntzak lortze aldera.
 - Haurren eta gazteen engaiamendu aktiboa sustatuko dira entitateek antolatzen dituzten jardueretan, eta, hedaturaz, haien ingurune soziokomunitarioan.
 - Adierazpena, sormena, parte-hartzea, pentsamendu irekia, autonomia eta erantzukizuna garatuko dituzte, horiek guztiak hartuta askatasunean eta elkartasunean hazteko oinarritzko printzipio gisa.



3.3. Honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Osasun, hezkuntza edota kirol arloetako edukiak baino ez dituzten proiektuak.
- Ezin izanen dira, ezein kasutan, diru-laguntzen xede izan Udalaren edota beste administrazioen programetan edo zerbitzuetan sarturik dauden proiektuak edota jarduerak, kudeaketa zuzeneko edo zeharkakoa (kontratu, hitzarmen eta abarren bidez) den gorabehera.
- Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorraren programen eta zerbitzuen jarduna zuzenean oztopatu edo programa eta zerbitzu horien berezko esku-hartzeak ukitu edo eragozten dituzten proiektuak edota jarduerak.
- Beste deialdi jakin baten xede diren proiektuak, bai eta hitzarmen, kontratu edo diru-laguntza izenpetua duten Federazioetan edo elkarteen-taldeetan txertaturik dauden entitateek aurkeztutako proiektuak ere, non eta proiektuak ez dauden behar bezala zedarriturik.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 45.000 €
Baldin eta 2019. urte bukaeran Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorrak sustatutako beste zenbait jarduera egin gabe gelditu badira, jarduera horietarako aurreikusitako diru-kopuruak deialdi honi esleitu ahalko zaizkio, eta horrek ez du ekarriko beste deialdi publiko bat egin beharra; haatik, haien onuradun izanen dira oinarri hauekin bat eskaera egin, eskabideak epearen barruan aurkeztu eta puntuaziorik altuena lortuuntuziorik altuena lortu duten entitateak edo elkarteak.
Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/23181/482090

3. Banakako gehiengo zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate onuradun bakoitzari emanen zaion kopuruak ezin izanen du gainditu aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren % 80, hala eskaria entitate batek banaka egiten badu nola bi entitatek edo gehiagok osatutako talde baten izenean egiten badu. Diru-laguntza eskatutako eta onartutako aurrekontuaren defizitaren (gastuak - diru-sarrerak) portzentaje bat izanen da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa defizitaren portzentaje bat izanen da, eta proiektuak eskuratutako puntuazioaren bezainbeste joko du; horrela, gehienezko puntuazioa (100 puntu) eskuratu duten proiektuek defizitaren % 100 jasotzen ahalko dute (ez da ezein kasutan izanen proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 80 baino handiagoa), eta gutxieneko puntuazioa (60 puntu) lortu dutenek defizitaren % 60 jasoko dute, betiere portzentaje horiek baino gutxiagoko diru-laguntzak eman daitezkeelarik balorazioa bera edo erabilgarri dagoen aurrekontua direla medio.

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Balorazioa dela-medio deialdi honetan erabilgarri dagoen aurrekontua nahikorik izan ezean, murrizketa bat eginen zaie, proportzionalki, diru-laguntzaren onuradunei.

5. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Zenbait urtetarako deialdia izanez gero, zenbait urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	45.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		



D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Deialdi honetan parte hartzen duten entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.
- Irabazi-asmorik gabekoa izatea.
- Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkari itza iraunkorra.
- Ageriko helburu gisa izatea, haien estatutuetan, gizarteko arta eta esku-hartzea, haur eta nerabeen sustapen eta prebentzioaren esparruan.
- Halako egitura bat edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala bere helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.
- Iruñeko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmenik, zerbitzu-kontratuziorik edo beste edozein kontratu zein konpromiso motarik sinatu ez izana, eta Iruñeko Udaleko alor honen edo beste edozein alorren diru-laguntzarik jaso ez izana proiektuan garatu beharreko jarduera bera edo antzekoak egiteko.

Aipatutako betekizun guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epearen azken egunean, eta mantendu beharko dira diruz lagundutako jarduerak irauten duen epean.

Diru-laguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

- **Emaniko diru-laguntza zein xedetarako jaso eta horien gastuak estaltzeko baino ez erabiltzea.**
- **Diruz lagundutako proiektua Udalaren Oinarrizko Laguntzako Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean egitea, eta, bereziki, Haurtzaroko eta Familiako Lantaldearekin.**

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela diru-laguntzaren xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: BAI EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

neurriak:

- Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.
- Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektrikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.
- Oroitzapen-plakak.
- Aipamenak hedabideetan.
- Beste batzuk:

- Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluaekin bat: BAI EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI EZ

Hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak zein errealitatean garatu behar diren eta horretara, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspenei dagokienez, ustekabeko inguruabarrak direla medio, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan. Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio diru-laguntza kudeatzen duen unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Halaber, diru-laguntzaren zenbatekoak eskatutako kopuruak baino gutxiago jotzen badu, proiektua eta proiektuaren aurrekontua finantzazio aukera errealekara doitzeko eskatzen ahalko zaio onuradunari, diru-laguntzaren gaineko ebazpena eman baino lehen eta udal-teknikarien jarraibideekin bat. Halakoetan, diru-laguntza kudeatzen duen unitateak eskatzaileei jakinaraziko die eskaera aurkezteko epea, zeina bost eta hamar egun naturalekoa bitarte izanen baita. Behin epe hori amaituta, balorazio bat egingen da aurkeztutako aldaketen gainean.

Proiektua garatzen den bitartean onuradunak sartzen baditu deialdi honetan ezarritakoarekin bat aldeztu aurretik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako diru-laguntzak osorik edo hein batean itzularaztea, edo, hala badagokio, diru-laguntza kobratzeko eskubidea osorik edo hein batean galtzea. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eraginen die baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira, aurrez aurre: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

Eskaerak telematikoki ere aurkez daitezke, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es) argitara emandako pertsona juridikoendako Diru-laguntzen eskaera elektronikoa delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T letretan aipatutako eranskinak.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hortaz, eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek NAOn zein egunetan argitaratu eta hurrengo hilabeteko zenbaki bereko egunean amaituko da, salbu eta egun hori baliogabea bada, halako kasuetan, hurrengo egun baliodunean amaituko baita epea. Muga-eguneko hilean ez bada



hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko eskabidez (aurkezpen telematikorako), interesdunak edo diru-laguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizuna hartzen duen pertsonak sinaturik, betiere deialdi honen I. eranskinarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) puntuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste ezein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administrazioak egin eta horrengandik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztatik aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

Entitateek honako hauek aurkeztu behar dituzte, Udalari lehenbiziko aldiz eskatzen badiote diru-laguntza:

- Legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko txartelaren eta NANaren fotokopiak.
- Entitatearen edo elkartearen estatutuen fotokopia.
- Egiaztagiria, eskaera aurkezteko unean zeini bere izaera juridikoa dela-eta dagokion Erregistroan izena emana duela ziurtatzeko, betiere hori eska badaiteke indarra duten arauekin bat.
- Hirugarrenen fitxa, bertan IBAN osoa agertuta.

.

b) Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. Eranskinarekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio haiek aurkeztea.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, diru-laguntza eskatzean egindako aitortzen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio taldeak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitortzen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ

f) Eskatzen den diru-laguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duen memoria.

Memoria hori atxikitako IV. Eranskinarekin bat (Proiektuaren aurkezpena) aurkeztuko da, bai eta gauzatu beharreko proiektua edo jarduera zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen diren beste edozein agiri ere (grafikoak, teknikoak, finantzakoak edo bestelakoak). Eranskinaren ordez entitatearen beste eredu batzuk erabili ahalko dira, baldin eta eranskinean jasotako datu eta puntu guztiak adierazita badaude.

g) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzeko arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri; horretarako, labur deskribatuko dituzte entitateak 2018. urtean Iruñean gauzatu dituen jarduerak eta proiektuak, bertan adierazita proiektu eta jarduera horien finantzabideen jatorria eta lotutako emaitzak, V. Eranskin osagarriarekin bat (Entitate eskatzaileari buruzko informazioa).

h) Hala badagokio, erantzukizuneko aitortzen, VII. Eranskinean jasotako ereduarekin bat, Alkatetzak 2016ko apirilaren 21ean emandako dekretuak galdatutako baldintzak –Adingabeen Babesari buruzkoak– betetzearen inguruan, zeina eman baitzen aplikatze aldera Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak –Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea hein batean aldatzen dituenak (uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatua)– 13.5 artikuluan xedatutakoa, adingabeekin harremanetan jardun beharra eskatzen duten lanpostuetan aritzeko profesionalak Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean ez daudela jasota ziurtatzeari buruz.

i) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea, baldin eta haxe bada Iruñeko Udalarira diru-laguntza bat eskatzen zaion lehenbiziko aldia edo aldaketarik bada aurreko diru-laguntzak jasotzeko emandako banku-kontuan.

.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak



edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak) eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Aurkeztutako jardueren gaineko balorazio irizpideak eta diru-laguntzaren zenbatekoa lehentasun-irizpide hauekin bat ezarriko dira:

1 - Koherentzia entitatearen xedeen eta deialdian proposatutako helburuen artean. Deialdira aurkezten diren entitateek helburuen artean eduki behar dute hurrekin eta nerabeekin jarduerak egitekoa, betiere prebentzio eta sustapen-ikuspuntutik abiatuta (0-10 puntu).

- Jarduera nagusiaren izaera eta entitatearen ibilbidea jarduketa-esparru horretan. Entitateek herritar guztiei zabalduko aisialdi eta denbora libreko jarduerak egin behar dituzte (0-5 puntu).

- Proiektuaren egokitzapena entitatearen benetako ahalmen tekniko eta ekonomikoetara. Entitateek behar beste baliabide tekniko eta ekonomiko eduki behar dituzte aurkeztutako proiektua gauzatzeko (0-5 puntu).

2 - Proiektuaren kalitate teknikoa (0-70 puntu).

- Proiektuaren alderdi teknikoak (deialdian ezarritako helburuekiko egokitzapen-maila, koherentzia-maila aurreikusitako helburuen eta egiteko jardueren artean, ordutegiaren eta denboren planifikazioa, proiektua egiteko erabiliko diren giza-baliabideak, proiektua gauzatzeko behar diren baliabide materialak, ebaluazio-adierazleak eta abar): (0-45 puntu).

- Hezkuntza-metodologiak, hurrekin eta nerabeekin egin beharreko esku-hartzeetan. Egin beharreko jardueretan aplikagarri diren alderdi berritzaileak: (0-5 puntu).

- Proiektuan parte hartu behar duten haur eta gazteen kopuruaren zenbatespena: (0-5 puntu).

- Osagarritasuna eta koordinazioa proiektua garatzean, hura non egin eta bertako Auzo-unitateetako Haurtzaroko eta Familiako lantaldeekin: (0-10 puntu).

- Proiektuan zeharka hainbat balio txertatzea genero-berdintasun, kulturartekotasun, elkartasun, lankidetzaren, eta abarrei buruz: (0-5 puntu).

3.- Proiektuaren bideragarritasuna: (0-20 puntu).

- Egokitzapena eta doikuntza aurreikusitako helburuen, lortutako emaitzen eta proposatutako aurrekontuaren artean: (0-10 puntu).

- Boluntario kopurua, jarduerak egiten laguntzeko:..... (0-10 puntu).

Diru-laguntzen onuradun izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte, eta gutxienez horietako 35, "Proiektuaren kalitate teknikoa" irizpidean.

Edozein unetan, instrukzio-organoak eskatzen ahalko dio entitate eskatzaileari eskaera baloratzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein agiri. Halaber, Batzordeak txostenak eta aholkularitza eskatu ahalko ditu, beharrezko joz gero, bai eta ofizioz egin ere beharrezko jotzen dituen egiaztapen-jarduketak oro, aurkeztutako eskaeren gaineko balorazioa egite aldera.



I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:	
Batzordeburua:	Gizarte Ekintzako Alorreko zinegotzi ordezkaria / ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaria
Batzordekideak:	
1.	Haurrei eta familiei laguntzeko programaren arduraduna / ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat
2.	Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat / ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat
3.	Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat / ordezkoa: Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari bat
Idazkaria:	Legelaria edo Zuzenbidean lizentziaduna, Gizarte Ekintzako Alorrari atxikia.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar dituzten baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Balorazio-batzordeak beharrezko informazio guztia argitu eta eskatzen ahalko du nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

2. Ebatzi eta jakinarazteko epea: sei hilabete

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen eta Udalaren webgunean (Gardentasuna atalean).

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu



legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ezberdinean gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu:

a) Langileak: Jarduera gauzatzeari lotu dakizkiokeen langileei ordaintzeak eragindako gastuak estal ditzake diru-laguntzak, horren xede den proiektuan edo jardueran emandako denborari dagokion proportzioan. Aurrekontuan, ongi zehaztuta adierazi beharko dira honako hauek: proiektua gauzatzeari esku hartuko duten langileen maila profesionala, haien arduraldia proiektuan eta egiteko lanak (diru-laguntzaren xede den proiektuari ez dagozkion bestelako lanetatik ezberdinduz). Gastu horiek legearen arabera behar den moduan justifikatu beharko dira (nominak, zuzen egindako fakturak dagozkien atxikipenekin, etab.). Prestakuntza-jardueretan, proiektuan jasota egonen dira haietan emandako ordurikopurua eta haien kostua, kontuan harturik laguntzak ez duela inoiz joko 30 € orduko baino gehiago. Hitzaldien kasuan (saio bakarrak), hitzaldi bakoitzeko gehienez 100 € emanen dira.

b) Funtzionamendu- eta administrazio-gastuak, halakotzat ulertuta jarduera egiteko beharrezkoak diren gastu orokorrak, hala nola ondasun eta zerbitzuen ohiko gastuak, hornigaiaren erosketak, lokalen alokairua, argia, ura, aseguruak, material suntsikorra, bulegokoa, etab. Oro har, gastu horiek ezin izanen dute gainditu guztira eskatu eta onartu den kopuruaren % 30.

c) Jarduerak: diru-laguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotutako gastuak, haien izaeratik lehen adierazitako gastu orokorrekin lotzen ez direnak. Haien artean garraioak eta joan-etorriek eragindako gastuak daude, baina bakarrik hartuko dira kontuan ezinbestekoak badira proiektua garatzeko, eskaeran aurreikusi badira eta entitateak egoitza non duen eta horko udal-mugartetik at egiten badira. Joan-etorriak, ahal dela, garraio bide publikoan egiten dira, eta ibilgailu partikularra erabili behar izanez gero, gehienez ere 0,25 € ordainduko dira kilometroko, baldin eta behar bezala egiaztatu eta justifikatzen badira gastuaren beharra, bidaiatzen duten pertsonen eginkizunak eta bidaiaren zioak (egin beharreko lanak, lekuak, datak, bidaia-kopurua, kilometroak, aurreikusitako kostua, etab.). Ibilgailu partikularretan egindako joan-etorriak justifikatzeko, gastuen banakako likidazio-orri bat aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi bidaia egiten dutenen identifikazio-datuak. Berariazko gastu honetarako, ezin izanen da erabili diru-laguntzaren % 20 baino gehiago proiektu osoan zehar.

d) Tokikoak ez diren tributuak diru-laguntzaren xede izan daitezke, diru-laguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen baditu. Inola ere ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergak. Zehazki, Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokionez, bakarrik izanen dira diru-laguntzaren xede benetako kostuak izaki onuradunak ordaindu dituen gastuen kopuruak, hau da, onuradunak benetan ordaindu dituenak eta kengarriak ez direnak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 18.000 eurotik gorakoa bada –ekipamendu ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, diru-laguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, eragimen eta ekonomia printzipioei egin behar zaie men,



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, diru-laguntzaren eskabideari.

Deialdiari heldu dioten elkarte eta entitateek txosten bat egin beharko dute diru-laguntzen deialdira aurkeztu dituzten proiektuei buruz, xehe-mehe azalduta jarduera bakoitza gauzatzeari egozten ahal zaizkion gastuak oro. Gastu horiek arrazionaltasun ekonomikoarekin bat egindakoak behar dute izan, eta, betiere, deialdi honen xedearekin bateragarriak eta jarduera gauzatzearekin proportzionalak. Deialdian ezarritako eran justifikatu beharko dira gastu horiek guztiak.

Ez da onartuko diruz lagundu daitezkeen kontzeptu batetik besterako gastu-trukeak, salbu Gizarte Ekintzako Alorrak baimentzen badu.

Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diru-laguntzen xedea izanen:

- Jardueretara bertaratzen direnendako ekarpenak, diruz zein jenerotan.
- Jardueretara bertaratzen direnendako jatekoak (haur-jardueretako otamenak izan ezik; kasu horretan diruz lagundutako gastuak ezin du gainditu eskatutako diru-laguntzaren % 7).
- Inbertsioak.
- Haborokinak edo dohaintzak.
- Ez dira diruz laguntzeko moduko gastu gisara onartuko deialdi honek xede duen jarduera gauzatzeko alditik kanpo egindakoak.

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea : *Diruz lagundu daitezke 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko epean benetan egindako gastuak.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoa: gehienez ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 izan daiteke.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Aurkeztutako proiektu guztietan, bere funtsekin edo beste administrazio publikoen edota entitate pribatuen ekarpenekin finantzatu beharko da finantzaketa-memorian jasotako proiektuaren guztizko kostuaren % 20 gutxienez, salbu Balorazio Batzorde Teknikoak inguruabar berezirik hauteman eta horren gaineko txostenik egiten badu.

Hori argi islatu beharko da proiektuen aurkezpenean eta aurrekontuetan.



Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Adierazitakoa gorabehera, diru-laguntza hau jasotzea, modalitate honetan, bateraezina izanen da Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorrak eta beste udal-alorrek xede bererako ematen dituzten diru-laguntzekin, honako bide hauetako bat erabilita jaso badira: diru-laguntzetarako deialdiak, lankidetzeta-hitzarmenak, zerbitzu-kontratazioak edo bestelako akordioak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Behin diru-laguntzen gaineko ebazpena eman eta gero, diru-laguntzak guztira zenbat jo eta horren % 100 ordainduko zaie, aurrerapen gisara, entitate onuradunei. Kopuru hori bi hilabeteren buruan ordainduko da gehienez ere, behin ebazpena jakinarazi eta hortik aitzina kontatuta.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zurreraren artekoa:

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, alde zurreratik, diru-laguntzen entitate onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, diru-laguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduarekin bat).

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira, proiektuaren aurrekontu osoarenak, eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren adinakoa. Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriek osatuko dute, eta haiekin batera deialdi



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

honi atxikitako VI. eranskina (Justifikazioaren aurkezpena) aurkeztu beharko da:

a) Kasuan kasuko entitateak edo elkarteak egindako Ebaluazio-memoria, diru-laguntzen xedea den jardueraren ganean, non xehetasunez aitortuko baitira diru-laguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua. Memoriaren edukia honako hau izanen da:

- Diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren izena, diru-laguntzaren helburua (aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera) eta egindako jarduketak, eta proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen deskribapena.

- Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak, halakorik balitz, betiere diru-laguntza ematen duen organoak baimena eman badu aldaketa horiek egiteko.

- Finantza-bideen zerrenda. Deialdi honen xede diren diru-laguntzekin finantzatutako jardueren deskribapena egin behar da, eta haien kostua adierazi, dagozkion fakturen bidez, bai eta norbere funtsekin edo beste diru-laguntzekin finantzatu diren diruz lagundutako proiektuaren barruko jardueren deskribapena ere. Diru-laguntza jaso dezakeen gastu bakoitzaren zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa bada, aholkularitza zein laguntzako enpresek emandako zerbitzuen kasuan edo ekipamendu-ondasunen horniduraren kasuan, onuradunak egiaztatu beharko du eraginkortasuna eta ekonomia hartu dituela irizpide enpresa hautatzeko, betiere deialdi honen L.1) puntuan eta Ordenantzaren 29.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

- Koadro bat, onetsitako aurrekontua eta gauzatutakoa alderatzeko, izandako desbideraketak aipatuta.

- Ondorioak.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda.

c) Gastuen justifikazio-agiriak: fakturak, ordainagiriak, are nominak ere, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako diru-laguntzaren kargura ordaindu bada. Halaber, Proiektuari egozten zaizkion gainerako gastuen agiriak ere aurkeztu behar dira, beste diru-laguntzen edo Entitatearen beraren kargura ordaindutakoak, hasierako aurrekontu osoa gauzatu dela frogatze aldera.

Hala Udalaren diru-laguntzari egotzitako agirien kasuan nola gainerakoenean, jatorrizko agiriak zein kopiak aurkeztu behar dira, diru-laguntzak kudeatzen dituen zerbitzuak konpultsatu ditzan. Zerbitzu horrek jatorrizkoak itzuliko dizkie entitateei, behin horiek konpultsatu eta egiaztatu ondoren, oinarri hauekin bat emandako diru-laguntzaren justifikazioaren arabera.

Jatorrizko agiriak edo horien kopia konpultsatuak entitate onuradunak gorde beharko ditu, gutxienez lau urtean.

Ez dira inongo kasutan onartuko ordainagiri hutsak, kutzako tiketak, emate-agiriak, dohainak, emate-oharrak, autofakturak, merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarriak eta baliozkotasunik ez duten agiriak eta egindako gastuaren ganean administrazio-eraginkortasunik ez dutenak.

d) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz. Nolanahi ere, ez da gastuen ordainagiririk aurkeztu behar, gastuaren zenbatekoa, banaka hartuta, 100 euro baino gutxiagokoa bada, eta gastu mota horiek, guztira, 1.500 eurotik gora jotzen ez badute.

e) Entitatearen arduradunak emandako ziurtagiria, honako hauek egiaztatzeko: proiektuaren xede diren jarduerak diruz laguntzeko jaso diren oinarri hauen bestelako diru-laguntzen zenbatekoa,



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

jatorria eta aplikazioa, bai eta lortutako beste diru-sarreraren eta baliabideenak ere.

f) Diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko geldikinik bada edo diru-laguntzen xede izan den jardueraren kostua baino diru gehiago jaso bada, eta horri dagozkion berandutze-interesak.

Proiektua gauzatzeko aurreikusi den dataz bestekoa duten fakturak honako kasu hauetan bakarrik onartuko dira: organo eskudunak aldeztu aurretik proiektuaren aldaketaren bat baimendu badu eta aldaketa horrek proiektua gauzatzeko epeari eragiten badio.

Proiektu osoa gauzatu dela frogatu beharko da. Ez bada % 100ean gauzatu, diru-laguntza murbada % 100ean gauzatu, diru-laguntza murriztu egingen da benetan gauzatzeko falta denaren arabera. Aurkeztutako justifikazioari balorazio-txosten bat erantsi beharko zaio, Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela diru-laguntzaren xedea, edo, bestela, zer akats eta inguruabarrek eragozten duten justifikazioa onestea.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua.

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: 2020ko urtarrilaren 30era bitarte.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

a) Justifikazioa aurkezteko eginbeharra betetzen ez bada –diruz lagundutako jardueran funts publikoen erabilera justifikatzeko beharrezko agiriak ez aurkeztea barne–, edo behar adinako justifikaziorik aurkezten ez bada, diru-laguntza itzuli beharko da, osorik edo parte batez, betiere betetze-maila eta gainerako inguruabarrak kontuan harturik.

b) Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1.- Balorazioa edozein delarik ere, inoiz ez da eskatutakoa baino diru gehiagorik emanen.
2.- Datu pertsonalen babesa: Iruñeko Udala da arduradun Gizarte Ekintzako Alorrak emandako diru-laguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es) kontsultatu ditzakezu tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. Proiektuaren aurkezpena.

V. ERANSKINA. Entitate eskatzaileari buruzko informazioa.

VI. ERANSKINA. Justifikazioaren aurkezpena

VII. ERANSKINA. Erantzukizuneko aitortpena, Alkatetzak 2016ko apirilaren 21ean emandako Dekretuak eskatutako baldintzak betetzeari buruz.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*